

NORI BERA

1.- Askotan lan nekeza eta esker(-bea?) gertatu arren, gauza interesgarria eta garrantzitsua izan ohi da goiko mailetakoa gaiak eta eguneroko bizitzatik kanpo daudenak nolabait erraztea, zabaltea eta ezagutaraztea.

Egia da horrelako lanetan aritzeko, jakituria ez bada trebetasuna behar dela, eta hau arian-arian lortzen dela.

Nolanahi ere, aritze horretan edonori eskatzen zaion lehen baldintza (ez bakarra, seguraski) seriotasuna da, seriotasuna eta zintzotasuna, besterik ez esatearren. Eta badirudi hemen bertute horiek ez direla maizegi ematen, batez ere jorratu nahi diren arloak irristakorrak direnean.

Eta irristakorra da Latiegi jaunak «Erdiaroko Euskal Erri-izenen idazkera» lantxoarekin (ikus aurtengo lehen KARMEL hiruilabetekaria, 40-44 or.) ikutzen duen arloa.

2.- Zorionez ala zoritxarrez, nondik begituzten zaion, lantxoaren arretaz irakurri duenari nabarmen baino nabarmenago gelditu zaizkio gure egileak eman dituen labankadak:

a) Ongi dago gauzak diren bezalaxe transkribatzea, baina ez dirudi zilegia gure buruari atsegin zaiona bakarrik, edota iruditzen zaigun legez transkribatzea. LANDAZURIREN liburuan honako transkribaketa irakurtzen duguneari:

«é para esta Villa poblar damos/les estas Aldeas que son nuestras en Alava, Huruaga, Egoiain, é Ur/bina, é Anguello, é Nafarrate, é Losu».

garbi bereiz ditzakegu é azentudunak (kopulativak) batetik eta toponimoak bestetik.

ELOSU toponimoaren kasuan (é Losu) artikulugileak zuhur jo-

katzen badu ere, ezin da gauza bera esan Egoiain (etimologia eta guzti!) ematen diguncan.

Ez da paper zaharren artean gehiegi ibili behar, ingurune horretan lehenengo toponimoari ezik, beste guztiei aurretik «e» kopulati-boa ezarri zaiela susmatzeko.

Bada, bestalde, LANDAZURI jaunari oharkabean sartu bide zitzaion huts bat. «Egoiain» irakurri zuenean askotan gertatu ohi den akatsa papereratu zuen: «e» minuskula baten gainean zegoen azentu bihurriak («é») maiuskula irakurtzera bultzatu zuen.

Baina oraindik zalantzarik balego GOIAIN izenaren jatorrizko formaz, eta 952. urteko dokumentu batetan L. SERRANO-k (*Cartulario de San Millán de la Cogolla*, Madrid 1930) egin zuen irakurketak (GOGAHEN) edota UBIETA ARTETA-k (*Cartulario de San Millán de la Cogolla*, Valencia, 1976) egiten duenak (GOGAHAN) garbiago utziko ez baligute, Lategi jaunak ondo ezagutzen omen duen 1025.eko «burni-barren idaztia»-k ez liguke inolako arazorik utziko, bertan GOIAHEN agertzen bait da. Beraz, hasierako «E» hori eta sasetimologia horiek sobran leudeke.

b) URRUNAGA toponimoak izandituen gorabeherei dagokienez, esan beharrekoa da Kukulla'ko Dekanoari esan ez omen zioten «URNA», ezagutzen dugun formarik zaharrena dela: 952. urtekoa.

d) ELOSU toki-izenak, ikusi den LOSU hori baino lehenago, honako aldakiak ezagutu ditu: ELHOSSU (1025), ELOSUA (1257) eta HELOSSUA (1294).

Artikuluaren egileak «ELLOSU da seguraski» esaten duenean (eta hemen fonetikari dagokion arazoa dugu), ez bide du kontutan hartzen Mitxelena bere *Textos arcaicos vascos* liburuan garbi utzi zuena, hots horiek euskal herrietan izan duten bilakaera alegia.

e) Dagokigun NAFARRATE herri-izenaren forma ezagun zaharrena NAFFARRATE da (1025.ean) NAFARRATE itxuraz, Landazurik 1602. urteko dokumentu baten transkribaketa egiterakoan azaltzen zaigu. Berandu, beraz.

f) Tamalez, artikuluaren egilea gehiago animatu da izen bati euskal toponimo baten usaia hartu dionean, eta, zalantza izpirik agertu gabe, honako hau baieztatzen du:

«Gaurko 'Las Cruces' au KRUTZETA da, Aramayona eta Le-

gutiano'ren artean dagoen atea, Legutiano'ren muga «fasta las cruces de Aramayona» izango dala bait diosku».

Ohar pare bat.

1.- Aipatzen zaigun KRUTZETA (gaztel. CRUZ + ETA) toki hori izendatu ohi dutenen artean [Salbuespen harrigarriena Ertzantzak eta E.T.B.-k jaurtikitzen digutena mendatea elurrez ixten denean: LA CRUCETA!]

2.- Legutiotik Aramaiora doan bidea ezagutzen duen edonori arraro samarra egingo zaio Legutioko muga hain aramaiotartua ikus-tea, bederatzi bat kilometro aurki bait daitezke KURTZETA izena daraman tokitik bertatik Legutioko mugaraino, eta zail da ulertzen Aramaio aldeko mugak hain bide luze eta latza eginga izatea, besteeck, Gatzaga, Ubidea eta Otxandioko mugek hain zuzen, beren horretan-txe dirauten artean.

Historiak besterik erakutsi arte, ez dirudi KURTZETA-k eta «las cruces»-ek toki bera izendatzen dutenik.

3.- Esan beharrekoa da, azkenik, tartekaturik agertzen diren propagan-dari kasu egiten bazaio, Paleografiaz baliatzen diren euskal ikerlariak kale go-rrian geratzeko arriskuan izango dira laster, ez omen dira bat ere fidagarriak orduko lekukoak.

Bestalde, zein toki egokiagorik munduko deabrukerien habeak jarri zi-tuenari eskaintzen zaizkion burutazioak jartzeko (Toponimia induktiboa deitzen zaio alabaren senargaiaren aitzakiaz aitarenenganaino iristeari?), horrela-ko artikulu bat baino?

Jaungoikoari Jaungoikoarena
eta deabruari dagokiona!!

Patxi Salaberr